

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Euskararen ahozketasuna indartzeko "Solaskide" programa ikasgeletara itzuliko da bi urtez etenda egon ondoren

Hogei ikastetxetako 1.500 bat ikaslek parte hartuko dute

Viernes, 23 de octubre de 2015

Urriaren 26tik abenduaren 22ra egingo da euskararen ahozketasuna indartzeko "Solaskide" programaren beste edizio bat. Programa hori ikasgeletara itzuliko da aurten 2002 eta 2012 urteen artean egindako lehen etapa baten ondoren, 2013 eta 2014an etenda egon zena. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan eta Batxilergoko 1.an egingo da jarduera bereziki, eta hogei zentrotako 76 ikasle-taldeek parte hartuko dute, 1.500 ikaslek, guztira.

"Solaskide" programaren helburua mintzameneko jarduerak indartzea da, eta ikasleak hizkuntz ezagutzako ziurtagiriak lortzeko prestatzea, Nafarroako Gobernuak euskararen gaitasun agiriaren titulua (EGA), adibidez. Ikasleen komunikazio-gaitasunak areagotu nahi dira, mintzamenaren garapena bereziki. Hezkuntza Departamentuak adierazi duenez, ahozketasuna lantzea funtsezkoa da hizkuntzaren murgiltze ereduetan, ikasleek hitz egitean erregistro ezberdinak erabili ahal ditzan: formala, ez formala eta informala, eta haietako batzuk ezohikoak dira ikasgelako irakaskuntza-ikaskuntzako giro akademikoan. Gainera, hala, beste hizkuntz erreferentzia batzuk eskaintzen zaizkio ikaslea dagoen hizkuntz harremanen testuinguruaren arabera, zenbaitetan euskararen presentzia ez dena behar bezain adierazgarria komunikatzeko beharrei aurre egiteko.

Sei saio antolatu dira, astean behin, eta ikasle-talde bakoitza bitan banatzen da; horrenbestez, ikasle batzuk euskara-irakaslearekin daude, eta beste ikasleek kontratatutako espezialista arduratzen da. Ikastetxeko Euskara eta Literatura departamentuak talde bakoitzarekin landuko den helburua finkatzen du hezkuntza-mailaren eta ereduaren arabera, euskaraz irakastekoa dena edo euskaraz irakastekoa ikasgai modura.

Programa Euskaraz kooperatiba-entitateari esleitu zaio 22.790 euroan, enpresen arteko norgehiagokan egindako laguntza teknikoko kontratu baten bidez.